

2022. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239.zk.

ORDENANTZA FISKALA, AUTO-TAXI LIZENTZIEN TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek Auto-taxien Lizentzien tasa eskatuko du.

2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasa honen—egitate ezargarria auto-taxien lizentzien gaineko zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea da, martiaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onetsitako erregelamentuan agertzen direnak eta automobil arinen garraioko uriko zerbitzuen gaineko Udal Erregelamentuak garatuak hain zuzen ere. Hona hemen zerbitzuok eta jarduerok:

- a) Lizentzien kontsezioa eta ematea.
- b) Lizentziak eskualdatzeko baimena ematea, halan egitea egokia denean eta indarreko legeriaren arabera.
- c) Lizentziari lotutako ibilgailuak aldatzeko baimena ematea, bai aldaketa borondatezkoa denean, bai legeak aginduta denean.

3. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Legeetan edo Nazioarteko Itunen aplikazioetan beren beregi ezarritako salbuespenak edo hobariak baino ez dira emango.

4. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK

Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, hau da, auto-taxien lizentzia hartzen dituztenak.

5. artikulua. TASA KUOTA

Tasa kuota kopuru finko batez finkatuko da, zerbitzuaren edo jardueraren eta honako tarifa hauen arabera:

	2022 (€)
1- Lizenzia ematea	372,18
2- Bizien artean lizenzia eskualdatzeko baimena	1.425,08
3- Heriotzeagaitik derrigorrezko oinordekoen alde lizenzia eskualdatzeko baimena	653,86
4- Ibilgailua aldatzeko baimena	18,86

6. artikulua. SORTZAPENA

Tasa sortuko da eta tasa ordaindu behar izango da udal honek lizenzia eman eta luzatuko duen egunean edo lizenzia eskualdatzeko edo ibilgailua aldatzeko baimena emango duenean.

7. artikulua. ORDAINTZEA

- 1.- Tasa honetako jarduerak eta zerbitzuak alde batek eskatuta egin beharko dira.
- 2.- Kuota guztiak kitatu egingo dira zuzeneko ordainketea egiteko lizenzia edo baimen egokiak emanda gero, eta zergadunek diru-bilketearen gaineko erregelamentuan ezarritako epean ordainduko dituzte kuotak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsi dauen Kudeaketa, Diru-bilketea eta Ikuskapenaren gianeko Ordenantza Fiskal Orokorra eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko dira.